

Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa hedatzeko tresnen gida


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Atención Sociosanitaria



Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa hedatzeko tresnen gida

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Abendua 2024

AURKIBIDEA

SARRERA.....	1	ESKU-HARTZEAREN METODOLOGIA.....	28
Gidaren helburua.....	2	Nola kudeatu eta koordinatzen dira kasuak?.....	29
Xede-hartzaileak.....	3	EUSKARRI-TRESNAK.....	36
ARRETA SOZIOSANITARIOA EAEN.....	4	Zer dira koordinazio-tresnak?.....	37
Zer da Arreta Soziosanitarioa?.....	5	Zer beste dokumentu lagungarri daude?.....	42
Norentzat da Arreta Soziosanitarioa?.....	7	ELKARREGINGARRITASUNA (Informazio-sistemen	
Zein da Arreta Soziosanitarioaren eredia?.....	8	interkonexioa).....	45
Zer erakundek esku hartzen dute Arreta		Zer da Elkarreragingarritasun	
Soziosanitarioan?.....	9	Soziosanitarioa?.....	46
Nola egituratzen da Arreta Soziosanitarioa?.....	11	ERANSKINAK.....	47
Zer baliabide soziosanitario daude EAEn?.....	12	Arau-esparrua.....	48
ARRETA-EMAILEAK ETA KOORDINAZIO- ORGANOAK.....	13	Esparru estrategikoa.....	49
Zer profesionalek ematen dute Arreta koordinatua?.....	14		
Profesionalak nola antolatzen dira elkarrekin			
koordinatzeko.....	22		



—
SARRERA

Gidaren helburua

Gida hau arreta soziosanitarioaren arloan kokatzen da, eta, zehazki, **2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategiaren barnean**. Estrategia horrekin, hain zuzen ere, **lehen mailako arreta soziosanitarioa (LMAS) bultzatu nahi da, erakundearteko koordinazioa handitzeko eta lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen esku-hartzeak errazteko ekintzen bitartez**.

Ekintza horietako bat da gida bat egitea, eta horren bidez **oinarrizko informazioa eta tresnak ematea** profesionalei, **arreta hobe eman diezaieten** premia soziosanitarioak dituzten pertsonen.

Beraz, hauxe da gida honen helburua: eremu soziosanitariora lehen aldiz hurbiltzen diren profesionalei laguntza ematea, zer den, nortzuek parte hartzen duten eta EAEko koordinazio soziosanitarioko erreferentziazko elementuak zeintzuk diren azalduz.



Eskuragarri dauden dokumentu eta tresnei buruzko informazio estrategikoa biltzea, haiei buruzko ezagutza zabaltzeko eta kasu soziosanitarioak kudeatzen eta koordinatzen dituzten profesionalak erabil dezaten sustatzeko.

Xede-hartzaileak

Gida honen hartzailetzat jotzen dira:

1

Gizarte- eta osasun-zerbitzuetako profesionalak, bai lehen mailako jarduera-eremukoak, bai bigarren mailakoak, **behar soziosanitarioak dituzten pertsonen zuzenean arreta ematen dietenak.**

Profil profesionalak

2

- **Gizarte-laneko profesionalak,**
- **Medikuak eta erizainak,**
- **Hainbat espezialitatetako medikuak** (Psikiatria, Pediatria, Geriatria, Barne Medikuntza, Medikuntza Aringarria, etab.);
- **Psikologiako, Hezkuntzako eta Gizarte-hezkuntzako profesionalak.**

3

Euskal espazio soziosanitarioaren funtzionamendua ezagutzeko interesa duen pertsona oro (ikertzaileak, beste administrazio publiko batzuetako kudeatzaileak, irakasleak, politika publikoak definitzen, programatzen eta/edo ebaluatzen diharduten profesionalak, besteak beste).



ARRETA SOZIOSANITARIOA EAEN

Zer da Arreta Soziosanitarioa?

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arreta soziosanitarioaren definizio oso egokia ezartzen du, arreta soziosanitarioa honako hauekosatzen dutela adierazten baitu:

«Osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketekosatzen dute arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena».



Arreta soziosanitarioa eremu estrategikoa da EAEn, eta helburu du arreta-sistema edo -maila desberdinetako profesionalen koordinazio asistentziala handitzea, erantzun bateratua eman diezaieten biztanle-talde jakin batzuen beharrei.

Arreta soziosanitarioaren **jarduketa-esparrua funtsezko elementu hauek oinarri hartuta definitzen da:**

- Esku-hartze mistoak –sozialak eta sanitarioak– aldi berean edo segidan eskatzen dituzten **premia-egoera konplexuei erantzuten die**, baina, nolanahi ere, esku-hartze horiek osagarriak dira eta hertsiki egituratuta daude.
- Helburu nagusi bat dauka: **zaintzen jarraipena bermatzea**, desoreka materialak –gainjartzeak eta hutsuneak edo defizita estalduran– eta denborazko desorekak saihestuz –desfaseak edo itxaronaldiak esku-hartzeen artean eta zerbitzuen artean–.
- Diziplinartekotasun-printzipioaren inguruan egituratzen diren **lankidetzatresna eta estrategia batzuk erabiltzen ditu**.
- **Pertsonengan oinarritutako arreta integraleko ikuspegi** batean dauka bere zentzua eta oinarria, eta ahal den **ongizate, bizitza-kalitate eta autonomia handiena bermatzea** du helburu, ahal izanez gero, bere ohiko ingurune sozialean geratzeari eta arreta etxean emateari lehentasuna emanez.

Ikuspegi horretatik begiratuta, arreta soziosanitarioaren helburua da hobetzea pertsonen osasun-egoera eta autonomia, hots, haien ongizate orokorra, gizarte- eta osasun-zerbitzuetako sistemen jardun koordinatuaren bidez.

Norentzat da Arreta Soziosanitarioa?

Arreta soziosanitarioak pertsonak jartzen ditu erdigunean; bereziki, **haien egoera berezia dela-eta esku-hartze estrategikoaren xede-kolektibotzat hartzen direnak**. Kolektibo horiek, besteak beste, mendekotasun-egoeran, desgaitasun-egoeran edo gizarte-bazterketan egon ohi dira, batzuetan aldi berean, eta diziplinarteko esku-hartzea behar izaten dute.

1

Egoera zaurgarrian edo mendekotasun egoeran, edota izateko arriskuan, dauden adinekoak

2

Desgaitasun edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak

3

Gizarte-bazterketako edo pobrezia-egoeran dauden pertsonak

4

Sexu-indarkeriaren biktimak

5

Buruko gaitzak dituzten pertsonak

6

Arriskuan dauden haurrak eta gazteak

7

Dementziak dituzten pertsonak

8

Gaixotasun neurodegeneratiboak dituzten pertsonak

9

Zainketa aringarriak behar dituzten pertsonak

10

Gaixotasun arraroak edo prebalentzia txikikoak dituzten pertsonak

11

Gaixotasun kronikoak eta/edo ezintasuna sortzen dutenak dituzten pertsonak

12

Eriandoan dauden pertsonak

13

Egoera administratibo irregularrean dauden eta osasun- eta gizarte-premiak dituzten pertsonak

Zein da Arreta Soziosanitarioaren eredua?

Ekosistema soziosanitarioaren ezaugarri nagusia sistemen arteko harremanen konplexutasuna da; batik bat, sistema sozialaren eta sistema sanitarioaren arteko harremanena —aldizka, beste sistemak ere sartzen dira (hezkuntza, lan arloa, justizia, etab...)— eta sistemako eragileen artekoena (premia soziosanitarioak dituzten pertsonak artatzen dituzten profesional sozial eta sanitarioak).

Beharrezkoa da lankidetzaren eta koordinazioaren indartzea esparru horretan. «Esparru honetan sartzen dira babestuak izateko orduan gizarte- eta osasun-zerbitzuen ekintza bateratua, koordinatua eta eutsia behar duten pertsonak. Euskal Autonomia Erkidegoan, eskumenak instituzioen eta instituzio horien mailen artean nola banatzen diren ikusita, horien guztien arteko koordinazio-eredu bat hautatu da, sektore hori bakoitzaren politikak harmonizatuz garatu nahi baita, era horretan, azken urteetan egin diren aurrerapenen espiritua eta funtsezko osagaiak biltzeko»

(12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa).



Erakundearteko koordinazio-eredua, ardatz komun honekin: **pertsonek dituzten arreta eta zainketa soziosanitarioko premiei erantzutea.**

Zer erakundek esku hartzen dute Arreta Soziosanitarioan?

Erakunde mailan, arreta soziosanitarioa lankidetza-esparru baten arabera antolatzen da. Horrek eskatzen du lehen eta bigarren mailako arreta soziosanitarioaren ardura duten EAEko administrazioak koordinatzea, hala sistemaren beraren barnean nola sistemen artean.

Hauxe da **erakunde-mapa**:




252

Udalak



3

Foru-Aldunaldiak



1

Administrazio
Autonomikoak

EAEko udalak, EUDELeK ordezkatuak.

Gizarte-zerbitzuen sistemarako sarrera dira, eta, beraz, lehen mailako gizarte-arreta ematen dute.

Foru-aldundiak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzu, -prestazio eta -politiken arloko eskumenak dituzte.

Eusko Jaurlaritza, erantzukizuna duen administrazio autonomiko gisa:

- Politika sanitarioak planifikatu eta gauzatzea (Osasun Sailaren bidez), eta asistentzia sanitarioa ematea (Osakidetza bidez).
- Gizarte-politikak planifikatu eta gauzatzea (teleasistentzia eta bigarren mailako beste arreta-zerbitzu batzuk, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren bidez).

GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA

**BIGARREN MAILAKO
ARRETA/ESPEZIALIZATUA**



ONGIZATEA, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOA-
EREMU AUTONOMIKOA



FORU-ALDUNDIAK -
LURRALDE-EREMUA

**LEHEN MAILAKO
ARRETA**



252 UDAL-
TOKIKO EREMUA

SISTEMA SANITARIO

**LEHEN MAILAKO ARRETA
BIGARREN MAILAKO ARRETA/
ESPEZIALIZATUA**



OSASUN SAILA -
EREMU AUTONOMIKOA



OSAKIDETZA -
EREMU AUTONOMIKOA

Nola egituratzen da Arreta Soziosanitarioa?

Arreta soziosanitarioaren egitura funtzionala osatzen dute hainbat **organo erabakitzailek eta koordinazio soziosanitarioko figurek**, eta horiek eratzen dute EAEko gobernantza soziosanitarioa.

Organo erabakitzaileak

1. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, erkidego mailakoa.
2. Kontseilu soziosanitarioak eta batzorde soziosanitarioak, lurralde mailakoak.
3. Eskualdeko batzorde soziosanitarioak, eskualde mailakoak.
4. Lehen mailako arreta soziosanitarioa (lehen mailako arreta soziosanitarioko diziiplina anitzeko taldeek osatzen dute).
5. Arreta goiztiarreko balorazio-taldeak (lurralde-eremukoak).

Koordinazio figurak

1. Koordinazio Soziosanitarioa, erkidego mailakoa.
2. Koordinazio Soziosanitarioa, lurralde mailakoa.
3. Erreferente soziosanitarioak, tokikoak /eskualdekoak.

Horrez gain, Eusko Jurlaritzan, Osasun Saileko **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza** dago 2021az geroztik, osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua](#).

Zer baliabide soziosanitario daude EAEn?

Baliabide soziosanitarioak dira beharrizan soziosanitarioko egoerei erantzuten dietenak eta erakundearteko lankidetzaz-esparru egonkorra eskatzen dutenak egoera horiek garatzeko.

Baliabide Soziosanitarioen Katalogoan honako baliabide hauek biltzen dira: gizarte-arretako edo osasun-arretako zerbitzuen edo prestazioen zorroetakoak izanik, esku-hartze soziosanitarioetan erabiltzeko lankidetzaz-mekanismoak ezartzea ezinbestekoa den baliabideak. Planteamendu horren arabera, katalogoak honela sailkatzen ditu baliabide soziosanitarioak:

a) Instrumentalak

Premia soziosanitarioak dituzten pertsonei arreta egokia emateko behar diren tresnak.

b) Finalistak

Gizarte-arretako edo osasun-arretako zerbitzuak eta prestazioak, aldi berean edo modu sekuentzialean eta koordinatuta eta egonkortasunarekin aplikatuta, kasu bakoitzean behar den arreta soziosanitarioa modurik egokienean eta eraginkorrean emateko behar direnak.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [150/2022 Dekretua, abenduaren 7koa, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa](#) (eranskina, 27. orrialdea).

Eskura dauden baliabide espezifikoak errazago aurkitzeko eta horiei buruzko oinarritzko informazioa lortzeko, [mapa eskura duzu Arreta soziosanitarioaren](#) atarian.



AGENTE HORNITZAILEAK ETA KOORDINAZIO-FIGURAK ETA -ORGANOAK

Zer profesionalek ematen dute arreta koordinatua?

Gizarte eta osasun arloko premiak artatzeko, pertsonen osasunean eta ongizatean esku hartzen duten profesionalek lankidetzaren prozedurak zehaztu behar dituzte, esku-hartze bateratuak eta erantzun koordinatuak indartzeko.

Arreta soziosanitarioaren emailtzat har daiteke, oro har, arlo sanitarioko edo gizarte-zerbitzuen eremuko edozein profesional —kasu misto bat artatzeko eta kudeatzeko koordinatzen dena—. Dena dela, arreta soziosanitarioa ikuspegi funtzional eta asistentzialetik antolatzeko asmoz, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak eremu soziosanitarioan funtsezkoak diren figura batzuk arautu eta finkatu zituen.


Dekretu horretan jasotzen denaren arabera, figura horiek ez dira egiturazko figurak edo figura sortu berriak; aitzitik, **kasuaren kudeaketa partekatuan eskumen espezifikoak dituzten profesionalak dira, kasuan kasuko erakundeak horretarako izendatuak.**

Zehazki, lan koordinatu horren ardatza dira **diziplina anitzeko arreta-taldeak eta koordinazio-figurak.**

Zer profesionalek ematen dute arreta koordinatua?



Lehen Mailako
Arreta
Soziosanitarioko
taldeak



Arreta Goiztiarreko
Balorazio Taldeak
(AGBT)



Erreferente
soziosanitarioak



Hurbileko
erreferenteak



Erkidegoko
Koordinatzaile
Soziosanitarioa



Lurraldeko
Koordinatzaile
Soziosanitarioa



Arreta
Soziosanitarioko
Zuzendaritza

1

Lehen mailako Arreta Soziosanitarioko taldeak

Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa lan-dinamika partekatu gisa egituratzen da maila asistentzian (arreta soziosanitarioko premiak dituzten pertsonen kasuen zuzeneko kudeaketa), honela geratzen da:

- **Lehen Mailako Arretako medikuek eta erizainek ematen dute**
- **udaleko oinarritzko gizarte-langilearekin batera**
- **edo, zenbaitetan, foru mailako gizarte-langilearekin batera** (edo gizarte-arretako beste profil batzuekin).

Kasuaren premien arabera, besteak beste, arlo sanitarioko profesionalek, gizarte-arlokoek eta hezkuntza-arlokoek ere parte har dezakete dinamika horretan.



Talde funtzionalak dira, eta, talde horietan, profesionalek dagokien kasu soziosanitarioan egin beharreko **esku-hartzea koordinatuko dute**, eta elkarrekin lan egingo dute kasuaren eskaerei erantzuteko baliabide sozialak, sanitarioak edo soziosanitarioak identifikatzeko, eta, azkenik, **Arreta Pertsonalizatuko Plan** partekatu bat definitzeko.



2

Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT)

Arreta Goiztiarreko Balorazio-Talde bat dago lurralde historiko bakoitzeko, eta foru-aldundi bakoitzak zehaztutako sailari atxikita daude, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

ABGTak arreta goiztiarrean aritzen diren hiru eremuetako profesionalak osatzen dituzte (osasunekoek, hezkuntzakoek eta gizartekoek), eta lurralde bakoitzeko premien arabera dimentsionatzen eta koordinatzen dira. Hau da, profesionalak osatuta daude, jarduera profesionalaren, espezializazioaren edo titulazioaren eskakizunen arabera, bat eginez Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan xedatutakoarekin.



Kasuaren asistentzia kudeatzen duten talde funtzionalak dira, eta bermatzen dute jarduketak koordinatzen direla eta baliabideak optimizatzen direla premia iragankor edo iraunkorrak dituzten, garapenean nahasmenduak dituzten edo nahasmenduak pairatzeko arriskua duten 0 eta 6 urte arteko haurrei zuzendutako esku-hartzeetan.



3 Erreferente soziosanitarioak

Profesional horiek, esperientzia eta fidagarritasunagatik, funtsezko figurak dira osasun-arloaren eta gizarte-zerbitzuen aldibereko arreta behar duten kasuen koordinazioa bermatzeko.

Profilen arabera, **erreferente soziosanitarioak hauek dira**:

- medikuak
- erizainak
- gizarte-langileak izan ohi dira
- besteak beste.



Profesional horiek solaskide-funtzioak betetzen dituzte maila asistentzialaren eta kudeaketakoaren artean, gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu sanitarioen sistemen artean, kasuan kasuko koordinazio soziosanitarioko premien arabera. Era berean, erreferenteak izango dira erkidegoko, lurraldeko edo tokiko proiektu soziosanitarioak dagokion erakundearen barruan hedatzeko.



4 Hurbileko erreferenteak

Hurbileko erreferentearen figura 2020ko martxoan sortu zen, COVID-19a agertu ondoren, hain zuzen ere **erreferentziazko profesionalak aritu zitezten zentro soziosanitarioen, adinekoen zentroen eta desgaitasuna duten pertsonen zentroen** premia sanitarioen erantzun asistentzialari loturiko **harremanetan eta koordinazioan**, kasuan kasuko erakunde sanitario integratuaren eragin-eremuaren barnean.

Profilen arabera hauek dira buruak:

- Lehen Mailako Arretako Unitatearen (LMAU) arduraduna
- edo osasun-zentroetako erizainak ohi dira buru.



Figura hori hurbiltasunak ezaugarritzen duenez, horretan diharduten profesionalak lehen mailako arretaren eremukoak dira.



5

Erkidegoko Koordinatzaile Soziosanitarioa

Erkidegoko Koordinatzaile Soziosanitarioak erkidego mailan koordinatzen du arlo soziosanitarioa plangintzari eta antolamenduari dagokionez, eta hura da erakunde mailako ordezkaria, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak horretarako eskuordetzen duenean. Halaber, laguntza teknikoko baliabideak ditu esleitu zaizkion funtzioak betetzeko.

Osasun Sisteman, Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko zuzendaria da koordinatzaile soziosanitarioa. Gizarte Zerbitzuen Sisteman, Gizarte Ongizatearen arloan eskumena duen sailburuak izendatutako pertsona izango da koordinatzailea.



Erkidegoko koordinatzaileak bere gain hartzen du ordezkaritza autonomikoa sistema esku-hartzaile bakoitzean (Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna), Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak hiru kudeaketa mailetan finkatutako konpromisoak betetzeko (plangintzan eta antolamenduan, antolaketan eta asistentzian).



6

Lurraldeko Koordinatzaile Soziosanitarioa

Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioa erreferentziazko figura da bere lurralde historikoaren barruko koordinazio funtzional soziosanitarioaren esparruan, eta zehazki bere eskumeneko eremuan (sanitarioa edo soziala), eta antolakuntza-kudeaketaren mailan dihardu.

Osasun Sisteman, lurralde historiko bakoitzeko koordinatzailea Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak izendatzen duena. Gizarte Zerbitzuen Sisteman, dagokion foru-aldundiak izendatuko du.



Lurraldeko koordinatzaileak bere gain hartzen dagokion sistemaren (gizarte-zerbitzuak edo osasuna) lurralde-ordezkaritza lurralde historiko bakoitzean, plangintzari, antolamenduari eta kudeaketa asistentzialari loturiko zereginetan.



Profesionalak nola antolatzen dira elkarrekin koordinatzeko?


Hainbat sektore eta erakundetako eragile ugari eskutu hartzen dutenez, eta EAEko administrazio publikoaren eskumen-banaketa berezia denez, arreta soziosanitarioak erakundearteko egitura konplexua du. Euskal Autonomia Erkidegoan, maila guztietako erakunde eskutu-hartzaileen arteko koordinazio-eredua aukeratu da.

Ilde horretan, 150/2022 Dekretuak ahalegina egiten du EAEko gobernantza soziosanitarioa harmonizatzeko. Horretarako, arkitektura instituzionala antolatzen du koordinazio- eta erabaki-organoetan oinarrituta (erakundearteko kontseilu eta batzorde gisa eratzen dira).



Erkidegoko organismoak

- Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua



Lurralde-organoak

- Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioak
- Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioa



Eskualdeko organoak

- Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa

1 Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

Osasun Sailak Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza sortu zuen 2021ean, osasun-sistemako arreta soziosanitarioko politikak definitu, gauzatu eta ebaluatzeko, gizarte-zerbitzuen sistemarekin lankidetzan (gizarte-politiken arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila, foru-entitateak, udalak eta beste gizarte-elkarte batzuk).

Antolamenduari dagokionez, zuzendariak bere gain hartuko ditu erkidegoko koordinatzaile soziosanitarioaren kargua eta eginkizunak. Gainera, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak profesional teknikoak ditu, zuzendaritzari laguntzen diotenak esleitutako eginkizunetan, baita erakunde eta profesional sanitarioei ere beren zereginetan.



Hauxe da xedea: EAEko osasun-sistemaren bidez arreta soziosanitarioa hedatzeko planak eta programak garatzea zerbitzu-sistemarekin koordinatuta kudeaketa maila guztietan (maila estrategikoa, antolakuntzakoa eta asistentziala).



2

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua

Koordinazio soziosanitarioaren arloko organo eskudunek hartutako erabaki politiko, arauemaile, ekonomiko, antolakuntzako eta asistentzialen inguruan aholkua emateko eta haien jarraipena egiteko organoa da.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari atxikitzen zaio, haren egitura hierarkikoan sartu gabe, eta sail horretan bertan du egoitza.



Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sistemaren arteko **lankidetza** eta **koordinazio autonomikoa** egituratzeko ardura duen organoa da.



3 Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko koordinazio soziosanitarioko organoak dira, eta plangintza- eta antolamendu-eskumenak dituzte, baita antolakuntza-kudeaketako eskumena ere. Foru-aldundi bakoitzak zehazten duen sailari daude atxikita.



Lurralde-plan operatiboa prestatzen, garatzen, jarraipena egiten, ebaluatzen eta onartzen dute, beren eremu geografikoan herritarrek dituzten premia soziosanitarioen arabera, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezarritako esparruan.



4 Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioa

Organo alternatiboa da, Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioaren erabakiz eratzen baita, dagokion lurralde historikoko premia soziosanitarioak kudeatu eta antolatzeko.

Hauek dira batzordearen eginkizunak: arreta soziosanitarioko zerbitzuen sarrera-, irteera- eta igarotze-oinarriak eta -ibilbideak baliozkotzea, eta hezkuntzako arreta soziosanitarioaren arloan eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bideratzea, proiektu eta prestazio soziosanitarioak ezartzeko eta gauzatzeko.



Erakundeen arteko koordinazioa errazten duen organo operatiboa da, Lurralde Historikoaren behar soziosanitario zehatzei erantzuteko.



5

Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa

Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioan parte hartzen dute Osakidetzako erakunde sanitario integratuek (aurrerantzean, ESI) eta ESlen eragin-eremu geografikoko udalerriek (eskualde batekoak edo gehiagokoak), eta profesionalei aholku ematen die erakunde bakoitzaren arreta soziosanitarioaren antolaketa eta laguntza kudeatzeko, baita parte hartzeko aukera ere.



Foro teknikoa da, eta helburu du gizarte-zerbitzuetako eta osasun-arloko asistentzia-eremuek eskualde-esparruan erabakiak elkarrekin hartzea eta koordinatzea.



A vertical spiral binding on the left side of the notebook cover, consisting of a series of metal or plastic loops.

ESKU-HARTZEAREN METODOLOGIA

Nola kudeatu eta koordinatzen dira kasuak?

Kasu soziosanitario bat aztertzen denean, eragile askok hartzen dute parte prozesuan, eta aldagai asko hartu behar dira kontuan, pertsonarengan eta haren ingurunean identifikatutako premiei erantzun ahal izateko.

Horregatik, **esku-hartzearen metodologia osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren artean partekatutako kasu-kudeaketa** batean oinarritzen da. Kasu soziosanitarioaren kudeaketa partekatu horretan **sei fase** daude:



1 Kasua identifikatzea eta aztertzea

Zertan datza

Osasun- eta gizarte-premiak dituen kasu bat detektatzea.

Nork egin behar du?

Osasun- edo gizarte-arloko profesionala.

Funtsezko alderdiak

- Kasu soziosanitario bat detektatzeko lehentasunezko helburua **dagokion sistema edo organismoari jakinaraztea izango da**.
- Eskuarki, **detektatutako kasuak arreta soziosanitarioaren xede diren kolektiboetako batean kokatu ahal izango dira**; hala ez bada, ordea, kasua identifikatuko da eta dagokion kasuistikan sartuko da.
- Kasuak **Lehen Mailako Arretatik** (soziala eta sanitarioa) **edo Arreta Espezializatutik** artatu eta kudeatu ahal izango dira.
- Kasua identifikatu eta tipifikatu ondoren, inplikaturako erakundeek definitutako koordinazio-prozedurei jarraiki jardungo da, egoeraren larritasunaren arabera (arrisku txikiko edo ertaineko egoerak eta/edo arrisku handiko egoerak).

2

Baimen informatuaren eskaera

Zertan datza

Dokumentu bat, profesionalai baimena ematen diena batera esku har dezaten artatutako pertsonaren beharretan. Kasua identifikatzen duen profesionala.

Nork egin behar du?

Osasun- edo gizarte-arloko profesionala.

Funtsezko alderdiak

- Esku hartzen duten erakundeek ziurtatu beharko dute behar den informazioa eskuragarri dagoela hartzaileak garaiz eta egoki jaso dezan.
- Baimen informatua modu digitalean edo idatziz jaso ahal izango da, eta ematen duen profesionalak zainduko du.
- Artatutako pertsonak edo haren tutoreak/legezko ordezkariak eman dezake baimena.

3

Kasuaren balorazio soziosanitarioa

Zertan datza

Egoeraren diagnostiko partekatua, non arretaren xede den pertsonaren gizarte- eta osasun-premien balorazioa egiten den.

Nork egin behar du?

Kasuan inplikaturako taldea edo profesionalak.

Funtsezko alderdiak

- Balorazio hori egiteko, eskala egokiak eta horretarako baliozkotutako tresnak erabili ahal izango dira.
- Kasua **Lehen Mailako Arretaren** mailan kokatzen bada, kasuaren informazio garrantzitsua partekatuko da, **interkontsulta soziosanitarioa** erabiliz. Horrela, kasuarekin zerikusia duten profesionalen edo taldeen artean lehen harremana ezarriko da, eta kasua modu partekatuan kudeatzea dakarten premia-egoerak zein diren jakin ahal izango da.
- **Bigarren Mailako Arreta** eskatzen duten kasuak arreta espezializatua eta arreta hori ematen duten erakundeek emandako baliabideak eskatzen dituzten egoera konplexuei buruzkoak izango dira.

4 Kasuaren esku-hartze koordinatua

Zertan datza

Kasuari arreta emateko koordinatu behar diren laguntza-ibilbideei egiten die erreferentzia.

Nork egin behar du?

Kasuan inplikaturako taldea edo profesionalak.

Funtsezko alderdiak

- Laguntza-ibilbideak helburu soziosanitario bakoitzean dauden premiei erantzuten dieten koordinazio-protokolo bateratuetan oinarrituta definitzen dira, inplikaturako arreta-maila eta/edo premia detektatzen duen eremua edozein izanik ere.
- Horretarako, **esku-hartze partekatuko plan** bat egingo da, honako hauek jasoko dituenak:
 - Kasua kudeatzeaz arduratuko den profesionalaren izendapena.
 - Erabiltzailearen edo haren ordezkarien adostasuna (baimena/onarpena).
 - Egingo diren jarduketa egokien eta erabiliko diren baliabideen balorazioa.
 - Mugarriak eta jarraipen-plana.
- Esku-hartze planean jasotako jarduketa motak zehazteko, kontuan hartuko dira, alde batetik, aurrez deskribatu diren biztanle-azpitaldeak, eta, bestetik, jarduketak zer ingurune edo lekutan egiten diren. Era berean, planak kasu bakoitzerako baliabideak eta zerbitzuak bideratu beharko ditu.

5 Baliabideak eta zerbitzuak bideratzea

Zertan datza

Artatutako pertsonak behar dituen baliabideak eta zerbitzuak zehaztea.

Nork egin behar du?

Kasuan inplikaturako taldea edo profesionalak.

Funtsezko alderdiak

- Baliabideak edo zerbitzuak balorazio integralaren eta esku-hartze koordinatuko planaren bidez bideratuko dira, baita esku hartzen duten sistemetan eskuragarri dauden baliabideen bidez ere.
- Eskura dauden baliabideak ezagutzeko, baliabide soziosanitarioen mapa duzu eskuragarri.

6 Kasuaren jarraipena

Zertan datza

Egindako esku-hartzeak erregistratzea eta monitorizatzea.

Nork egin behar du?

Kasuaren eta/edo ekipoaren arduraduna.

Funtsezko alderdiak

- Erregistroa aurreikusitako jarduketak egin direla ziurtatuz egingo da, eta kasuaren mugarri nagusien datak eta xehetasunak idatziko dira.
- Zehaztuko den jarraipen-planean, kasu koordinatuen asistentzia-adierazleak, esku-hartzeen aldizkakotasuna eta lehen esku-hartzearen data jasoko dira.
- Esku-hartzeei buruzko datuak talde soziosanitario bakoitzaren baterako bileretan bilduko dira. Komenigarria da bilera horiek **lau hilean behin** egitea.



EUSKARRI-TRESNAK

Zer dira koordinazio-tresnak?


Koordinazio-tresnak **arlo soziosanitarioan arreta bateratua ematen duten erakundeen arteko akordioak jasotzen dituzten dokumentuak** dira. Tresnok oinarritzko printzipioak jasotzen dituzte, kasu soziosanitarioen kudeaketa koordinatua bermatzeko.

Bi motatako koordinazio-tresnak daude:



Koordinazio soziosanitarioaren esparru-protokoloak

Esparru-dokumentuak dira eta honako hau dute **helburu**: sinatzen duten erakundeen arteko **lankidetzaz hitzarmena gauzatzea eta koordinazio soziosanitarioaren oinarritzko alderdiak formalizatzea**, eta haietan haren hedapena eta berrikuspena barne hartuta, besteak beste.



Koordinazio soziosanitarioko prozedurak

Eremu operatibo batetik arlo sozial eta sanitarioaren arteko koordinazio-modu espezifikoak artikulatzeko balio duten jarduerak edo esku-hartzeak definitzen dituzten dokumentuak dira, tokiko premia zehatzei, sortzen ari diren beharrei edo xede-kolektibo jakin batzuei zuzenduta daudenei erantzuteko.

1

Koordinazio soziosanitarioaren esparru-protokoloak




Lankidetzakordio baten bidez,
erakundeen arteko koordinazioa
formalizatzen dute



Erakundearteko **koordinazio**
soziosanitarioaren **oinarrizko**
alderdiak jasotzen dituzte



Helburua da bermatzea **laguntza ez**
dela etengo osasun-sistemaren eta
sistema sozialaren artean



Lehen Mailako Arreta
Soziosanitarioa garatzen
lagundu nahi dute



Pertsonen **premia**
soziosanitarioei erantzuten
diete, bizi diren inguruan bertan




Denboraren joanean
egonkorragoak dira jardunak

Sailkatzeko, **protokoloek** honako baldintza hauek betetzen saiatu beharko dute:

Eskatu den laguntza ematen duten **gizarte- eta osasun-erakundeek** esku hartzen dute:

- Osasuna: ESlak, erreferentziazko ospitaleak – egonaldi ertainekoak eta luzekoak –, osasun mentala, etab.
- Gizarte-arloa: ESlko erreferentziazko udalak, foru-aldundiak edo beste batzuk.



Sinadura: tartean diren erakundeetako **ordezkaritza-organo juridikoki baliozkoek** sinatzen dituzte:

- Osasuna: Osakidetzako zuzendaria.
- Gizarte-arloa: tartean diren udalerrietako alkateak edo osoko bilkurak.



Koordinazio soziosanitarioaren **funtsezko alderdien laburpena.**




2

Koordinazio soziosanitarioko prozedurak




Eremu sozialaren eta sanitarioaren arteko **koordinazio-modu espezifikoak** artikulatzen dituzte



Jarduketak edo esku-hartzeak **ikuspegi operatibotik** deskribatzen dituzte




Premia bereziak ere izaten direnez, haiei erantzuteko **beste koordinazio-modu batzuei ere egin nahi diete leku**



Maila askotako hainbat eragilek esku hartzen du



Premia zehatzei erantzuten diete: **tokian tokiko premiak, sortzen ari direnak** edo **xede-kolektibo** jakin batzuei arreta emateko balio dutenak




Moldagarriagoak dira (malguago jarduten dute, errazago egokitzen dira).

Prozedura horiek definitzea eragiten duten baldintza formalak honako hauek dira:

Eskatutako laguntza ematen duten gizarte- eta osasun-erakundeen esku-hartzea:

- Osasuna: ESlak, erreferentziazko ospitaleak –egonaldi ertainekoak eta luzekoak–, osasun mentala, etab.
- Gizarte-arloa: ESlko erreferentziazko udalak, foru-aldundiak, egoitzak, atal espezializatuak eta abar.



Aurretik aipatutako erakunde edo entitateetako zuzendaritza-organoen, gerentzien edo zerbitzuburuaren sinadura:


- Osasuna: zuzendaritzak edo kudeatzailerak medikoak edo zerbitzuburuak.
- Gizarte-arloa: instituzio eta/edo gizarte-erakundeetako zerbitzu-zuzendaritzak edo -buruak.



Kasuak modu koordinatuan lantzeko garatzen diren esku-hartze espezifikoak definitzea.



Direktorio bat ere sartzeari, jakiteko nola kontaktatu osasun- eta gizarte-arloko erreferentziako profesionalekin.



Zer beste dokumentu lagungarri daude?




Arreta soziosanitarioko taldeentzako gida-protokoloa

Lehen mailako arretako kasu soziosanitarioak koordinatzeko eta kudeatzeko protokoloa egiteko prozedura deskribatzen du.



Arreta soziosanitarioko lurralde-plan operatiboak egiteko gida

Lurralde-arloko koordinazio soziosanitarioaren esparruan plan eragilea egiteko informazioa ematen du.



Euskadiko baliabide soziosanitarioen katalogoa

EAEko baliabide soziosanitarioen informazio egituratua jasotzen du.

EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida

Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategia, 2021-2024
Arreta Soziosanitarioaren hedapena



Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen Gida

Erreferente soziosanitarioaren figura deskribatzen du, eta erakunde bakoitzeko erreferentziazko profesionalak identifikatzen ditu kasu soziosanitarioak koordinatzeko.

DECRETO DE GOBERNANZA SOCIO SANITARIA DE EUSKADI GUÍA DE COMUNICACIÓN

30 de diciembre de 2022

Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida

Dekretuan jasotako funtsezko informazioa laburbiltzen du, errazago ulertzeko eta erakunde.

GUÍA POLIVALENTE PARA EL CUMPLIMIENTO NORMATIVO EN PROTECCIÓN DE DATOS EN LA ATENCIÓN SOCIO SANITARIA. REQUISITOS EN MATERIA DE INTEROPERABILIDAD O INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN

Baimen informatuari buruzko gida balioaniztuna

Araudiari buruzko aholkularitza ematen du, informazio soziosanitarioaren truke segurua egiten dela ziurtatzeko, Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoak ezarritako parametroen arabera.



Baliabide soziosanitarioen mapa

EAEko baliabide soziosanitarioak geolokalizatzeko mapa.



Arreta soziosanitarioaren ataria

Eusko Jaurlaritzaren webgunea, non erreferentziatzeko informazio soziosanitarioa argitaratzen den.



ELKARRERAGINGARRITASUNA

(Informazio-sistemen interkonexioa)

Zer da elkarreragingarritasun soziosanitarioa?

Elkarreragingarritasun soziosanitarioa bideratuta dago informazio-sistema sozialaren eta sanitarioaren artean informazio-truke segurua ahalbidetzerantz, diziplinarteko arreta behar duten kasuak kudeatzeko eta koordinatzeko. Testuinguru horretan, gaur egun, EAEn koordinazio soziosanitarioa garatzen eta aplikatzen ari da eta honako jarduera-eremu hauetan informazioa trukatu:

- Interkontsulta soziosanitarioa lehen mailako arretan.
- Elkarreragingarritasun soziosanitarioa sustatzeko ataria.
- Kasuen kudeatzaile bat eraikitzea, informazioa trukatzeko.
- Aginte-koadro soziosanitario bat garatzea.
- Arreta goiztiarreko arreta pertsonalizatuko plan bakarraren kudeaketa partekatua.
- Mendetasunaren eta desgaitasunaren balorazioaren koordinazioaren bilakaera.

Horrez gain, elkarreragingarritasuna lantzen ari dira erabilera-kasu berrietan, besteak beste, honako hauetan:

- Etxeko arreta soziosanitarioa.
- Kronikotasuna eta mendekotasuna ikuspegi integral batetik.
- Landa-eremurako sorospen-eredu bat.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Elkarreragingarritasun Gida](#).



Elkarreragingarritasunaz hitz egiten denean, sistemen arteko **informazio-trukea gaitzeko eta, horrela, koordinazio soziosanitarioa errazteko garapen teknologikoa ahalbidetzen duen tresna** gisa ulertzen da.



ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Arau-esparrua

- 27/1983 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa.
- 8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa
- 126/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa.
- 150/2022 DEKRETUA, abenduaren 7koa, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa.

II. ERANSKINA. Esparru estrategikoa

EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN
ILDO ESTRATEGIKOAK • 2013-2016

Ebaluazio txostena
2017ko urtarrila



Euskadiko Arreta
Soziosanitarioaren Ildo
Estrategikoak
2013-2016

EUSKADIKO ARRETA
SOZIOSANITARIOAREN LEHENTASUN
ESTRATEGIKOAK 2017-2020

Bi sistema, xede bakarra: pertsonak



Euskadiko Arreta
Soziosanitarioaren Lehentasun
Estrategikoak
2017-2020

Euskadiko
Arreta Soziosanitariorako
Estrategia 2021-2024



Euskadiko Arreta
Soziosanitariorako Estrategia
2021-2024

